GORLIZKO IKASTETXEKO IKASLEEI BERTSOLARITZA-ESKOLAK EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea da Gorlizko Ikastetxeko lehen hezkuntzako 5. Eta 6. Mailetako ikasleei bertsolaritza-eskolak ematea, agindu teknikoen pleguan aurreikusten denarekin bat.

Definitutako kontratua zerbitzuen administrazio kontratua da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarauak Espainiako lege antolamenduan iraultzen dituenak, 17. artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. KLAUSULA.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Gardentasuna eta kontratu jarduerari buruzko informazioa jendeak eskura duela ziurtatzeko, bestelako iragarpen bitartekoak erabiltzea baztertu gabe, Gorlizko Udalak kontratatzailearen profila du eta hurrengo web orrian arautzen diren zehaztapenei jarraiki iritsi ahal izango da:

www.gorliz.eus

3. KLAUSULA.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 12.845,24 eurokoa da BEZ salbuetsita.

Kontratu honetarako aurreikusitako balioa 25.690,48 eurokoa da.

4. KLAUSULA.- GAUZATZE EPEA ETA TOKIA.

Kontratuak 2023/2024 eta 2024/2025 ikasturteen iraupena izango du, formalizazio dokumentua sinatzen denetik zenbatzen hasita, urtebeteko bi luzapen egiteko aukerarekin.

Hala eta guztiz ere, kontratuaren xedea kontuan hartuta, epeak 2023-2024 ikasturtera moldatu beharko du, beraz, adjudikazioa atzeratuz gero,

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

gauzatze epea murriztuko da, kontratuaren prezioa eta kontratistak osatu behar duen bermearen zenbatekoa modu korrelatiboan gutxitzearekin batera.

Gorlizko ikastetxean eskainiko da.

5. KLAUSULA.- KONTRATUAREN LUZAPENA.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 29. artikuluan xedatutakoarekin bat, epea luza daiteke, aurreko klausulan aurrez ikusitako epearekin bat. Luzapena kontratazio organoak erabakiko du eta enpresaburuarentzat nahitaezkoa da, betiere aurreabisua kontratuaren hasierako epea amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada.

6. KLAUSULA.- PREZIOAK IKUSKATZEA.

Kontratuaren izaera kontuan hartuta, ez dira prezioak ikuskatuko.

7. KLAUSULA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Lizitazio honetan lehian jardun dezakete pertsona natural edo juridiko guztiek, lege ahalmen eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuan murgilduak ez badaude eta kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa nahiz gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzen badituzte.

71. artikulua. Kontratatzeko debekuak.

1.- Sektore publikoarekin ezingo dute kontratatu honako egoeraren batean dauden pertsonek:

a) Epai irmoaren bidez kondenatutakoek, arrazoia honakoren bat izaki: terrorismoko delituak, erakunde edo talde kriminala edo legez kanpoko elkartea eratu edo kide izatea, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa, gizakien salmenta, negozioetan ustelkeria, influentzia trafikoa, eroskeria, iruzurrak, Ogasun Publiko eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak, langileen eskubideen aurkako delituak, prebarikazioa, bidegabeko eralgitzea, funtzionarioei debekatutako negoziaketak, kapitalak zuritzea, lurralde antolamendu eta hirigintzari buruzko delituak, ondare historikoa eta ingurumena babestea edo lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan jarduteko desgaikuntza bereziaren zigorra. Kontratatzeko debekua penalki arduradun aitortutako pertsona juridikoei zabalduko zaie. Gauza bera

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

gertatuko da izatez edo eskubidez kargua edo ordezkaritza indarrean duten administratzaileen edo ordezkarien enpresa juridikoekin egoera horretan badaude, kargua utzi arte.

b) Lanbide arloan arau-hauste larriaren ondorioz irmoki zigortutakoek honakoren bat zalantzan jarri bada: duintasuna, merkatuko diziplina, lehia faltsutzea, lan integrazioa eta aukera berdintasuna, baita desgaitasuna duten pertsonengatik eta atzerrikoengatik diskriminazioa, indarreko araudiak xedatutakoarekin bat. Gauza bera gertatuko da indarreko araudiaren arabera ingurumenaren arloan edo lan ala gizartearen arloan oso arau-hauste larria egiteagatik irmoki zigortuak izan direnekin. Bigarren kasuan gizarte arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bateginari, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoari, erreparatuko zaio. Azkenik, testu berak 22.2. artikuluan aurrez ikusitako arau-hauste larriekin irmoki zigortutakoak ere sartuko dira.

c) Hartzekodunen konkurtsoa hasteko eskaria euren borondatez egin dutenek, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota dudenek, hartzekodunen konkurtsoan deklaratuta daudenek (hitzarmen batera iritsi direnek edo ordaintzeko judizioz kanpo hitzarmen espedientea hasi dutenek salbu), epailearen esku-hartzearen menpe daudenek edo Konkurtso Legearen (uztailaren 9ko 22/2003 Legea) arabera desgaituta daudenek, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldi hori oraindik amaitu gabe badago.

d) Indarreko xedapenei jarraiki, araubidez zehaztutako baldintzetan zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko obligazioak eguneratu gabe dituztenek; edo 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onartzen duenak, 42. artikuluan xedatutakoarekin bat, araubidez zehaztutako baldintzetan 50 ala hortik gorako enpresen kasuan, gutxienez langileen ehuneko 2 desgaitasuna duten langileak izatearen baldintza betetzen ez dutenek; edo, 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatutakoaren babesean, 250 langiletik gorako enpresen kasuan, berdintasun plana ez dutenek.

Zerga betebeharrak ala Gizarte Segurantzarekin obligazioak betetzeari dagokionez, enpresak eguneratuak egongo dira, zorrak geroratuak ala zatikatuak badituzte edo zorren kontra egiteagatik etenak badaude.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Hizki honetako lehenengo paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta, desgaitasuna duten pertsonentzat ehuneko 2ko lanpostuak gordeak daudela eta berdintasun plana kontratatua dagoela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak 140. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

d) Faltsukeria egin dutenek 140) artikuluak aipatutako erantzukizunpeko adierazpen egitean edo bere gaitasun eta kaudimenaren gaineko beste edozein datu ematerakoan, edo 82.4 artikuluan eta 343.1. artikuluan ezarritako informazioa jakinarazteko beharra eurei egozteko moduko arrazoiengatik bete ez dutenek.

e) Administrazio-zigor irmoaren arabera ezarritako kontratatzeko debekuren batek eragindakoek, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean edo Zergen gaineko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren babesean.

Kontratatzeko debekuaren arrazoi hau, 72.1. artikuluan xedatutakoa aplikatu ostean, enpresak ordainketa obligazioak bete dituela edo zor dituen zenbatekoak ordaintzeko hitzarmen loteslea sinatu duela kontratazio organoak egiaztatzean utziko zaio aplikatzeari. Hala badagokio, metatu diren interesak edo jarritako isunak erantsiko zaizkio.

f) Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunei buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Legean edo autonomia erkidegoetako arauetan zein herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aipatutako kasuren batean sartuta dauden pertsona fisikoek edo pertsona juridikoen administratzaileek, nahiz Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako edozein hautetsik, azken horretan ezarritako baldintzetan.

Debekuak pertsona juridikoak hartuko ditu (aipatutako legeetan ezarritako baldintza eta zenbatekoen arabera), aurreko paragrafoko langileek edo goi-kargudunek, baita horien zerbitzura hautetsiek ere kapitala badute.

Era berean, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan adierazitako pertsonak kontuan hartuta, debekua ezkontideei, pareko bizikidetasun afektiboaren harremana duten pertsonei, gorakoei, beherakoei eta pertsonekiko odol-ahaidetasun edo parekotasunarengatik bigarren mailako ahaidetasuna

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

dutenei zabalduko zaie, kontratazio organoko titularrarekin edo kontratatzeko ahalmena eskuordetua duten organoetako titularrekin interes gatazka dagoenean. Irizpide bera aplikatuko zaie gertatuko da lehenengoa ordezkatzen duten organoei ere bai.

g) Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunei buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Legeak 15.1. artikuluan edo autonomia erkidegoetako arauek aipatzen duten ez-betetzeagatik "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratu diren pertsonak kontratatu dituztenek, kargua utzi eta hurrengo urte bietan karguaren eskumenekin zuzeneko zerikusia duten zerbitzuak emateagatik enpresa edo sozietate pribatuetan. Kontratatutako pertsona hori enpresaren egituran dagoen bitartean mantenduko da kontratatzeko debekua, gehienez urte biko mugarekin, goi-kargua uzten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

2.- Aurreko atalean aurreikusitakoez gainera, honako hauek ere izango dira enpresaburuei administrazio publikoekin kontratuak egiteko debekua ezarriko dieten inguruabarrak:

a) Adjudikazio-prozeduraren batean euren proposamen edo hautagaitza behar ez den moduan kendu dutenek, edo dolu, erru edo utzikeriaren ondorioz 150. artikuluko 2. atalean ezarritakoa horretarako ezarritako epe barruan bete ez dutelako kontratua eurei adjudikatzea eragotzi dutenek.

b) Beren alde adjudikatu ostean, adjudikaziodunari egotz dakiokeen arrazoiarengatik 153. artikuluan aurrez ikusitako epeetan kontratua formalizatu ez dutenek.

c) Kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez dituztenek, 202. artikuluak xedatutakoarekin bat ezarri diren gauzatze baldintza bereziak barne, legearen garapen xedapenei jarraiki ez-betetzea pleguek edo kontratuak arau-hauste larritzat jo badute eta enpresaburuaren dolua, errua edo arduragabekeria ematen badira. Horretarako, betiere zigorrak jarriak edo kalte-galerengatik kalte-ordaina definitua egongo dira.

d) Legearen 3. artikuluko erakunde batekin egin ondoren, errudun aitortzeko arrazoiarengatik, edozein kontratu irmoki suntsiarazten dutenek.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Kontratatzeko debekuek, modu berean, zuzentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk kontuan hartuta, kontratatzeko debekua zeukaten beste enpresa batzuen jarraipena direla edo enpresa horietatik eratorri direla (eraldaketa, bat-egite edo ondorengotzagatik) uste daitekeen enpresei ere eragingo die.

Enpresak pertsona fisikoak edo juridikoak izan ahalko dira, baina haien helburuak edo jarduerak zerikusi zuzena izan beharko du kontratuaren xedearekin, dagozkien estatutuen edo fundazio arauen arabera, eta elementu pertsonal eta materialez osaturiko antolamendu bat izan beharko dute kontratua behar bezala betetzeko.

8.KLAUSULA.- SAILKAPENA ETA KAUDIMENA.

Zerbitzuen kontratua denez, ez da sailkapenik aplikatuko.

Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa kontratuaren eremuan urteko negozioen bolumena aurkeztuz egiaztatu beharko da. Enpresaburuaren eratze edo jardueren hasiera daten arabera eta lizitazioaren iragarkian nahiz kontratuaren pleguetan eskatutako zenbateko edo hortik gorako eskaintzei erreparatuz, azkeneko hiru urte eskuragarrienetatik ekitaldi onenari buruzkoa izango da.

Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa nahikoak direla dokumentuz egiaztatzeko, urteko kontuak eta enpresaburuaren adierazpena aurkeztuko dira. Bigarren kasuan, enpresaren negozio bolumen orokorra adieraziko da. Nolanahi ere, Sektore Publikoaren Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribapenak sektore publikoko kontratazio organo guztien aurrean egiaztatuko ditu, horretan islatutakoaren babesean eta kontrakoa egiaztatzen ez den bitartean, enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruzko baldintzak.

Enpresaburuen gaitasun tekniko edo profesionala ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna kontuan hartuta antzemango da. Ildo horri eutsiz, hurrengo bitartekoak erabiliz egiaztatuko da:

- Azkeneko hiru urteetan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda, kontratuaren xede direnen berdinak edo antzekoak badira. Zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adieraziko dira.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, baldin eta onuraduna sektore publikoko erakundea bada edo, onuraduna subjektu pribatua bada, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiri hori ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, eskaini dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera; hala badagokio, ziurtagiri horiek agintari eskudunak zuzenean jakinaraziko dizkio kontratazio organoari.

Kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna duenean, gaitasun teknikoa b atalean aipatu bitarteko bat edo batzuk erabiliz egiaztatuko da, baina zerbitzu kopuru zehatza gauzatzeari buruz a) hizkian xedatutakoa ez da aplikagarria izango.

9. KLAUSULA.- GAITASUNA KANPOKO BITARTEKOEKIN OSATZEA.

Kontratu hau sina dadin beharrezko gaitasuna egiaztatzeko, enpresaburua beste erakunde batzuen gaitasun eta bitartekoetan oinarri daiteke, horiekin dituen lotura juridikoak alde batera utzita, betiere kontratuaren indarraldi guztian zehar gaitasun eta bitartekoak egiaz izango dituela frogatzen badu eta erakunde horiek kontratatzeko debekurik ez badute.

Baldintza berdinetan, enpresen aldi baterako elkartean multzokatuta parte hartuko duten enpresaburuek aldi baterako elkartetik kanpoko gaitasunetara jo dezakete.

10. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Lizitazioari buruzko deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da, SPKLk 135. eta 136. artikuluetan aurrez ikusitakoarekin bat.

Pleguak, obra proiektua eta dokumentazio osagarria lortzeko, kontratatzailearen profilera () eta Euskadiko kontratazio plataformara (kontratatzailearen profila) sar daiteke. Halaber, udal bulegoetan astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara bitartean, eskuratzeko aukera dago. Proposamenak aurkezteko epea egutegiko 15 EGUNEKOA izango da, lizitazioaren gaineko iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira Gorlizko Udaleko lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez. Ildo horri eutsiz, lizitazioa elektronikoki egin ahal izateko, aldez aurretik eskaintzak aurkezteko aplikazioa deskargatu beharko da web orritik honako helbidean: http://www.gorliz.eus/_layouts/Docs/Manual_licitación.pdf

Lizitazio elektronikorako plataforman sartzeko, lizitatzaileak ziurtagiri elektronikoa izan beharko du eta Gorlizko Udalak onartu edo prestatutakoa izango da.

Onartzen diren formatuak eskaintza elektronikoari eransten zaion banakako fitxategi bakoitzetan hauek dira:

.doc/.docx: Microsoft Word jatorrizko testuaren formatuak.
.xls/.xlsx: Microsoft Excel jatorrizko kalkulu orriaren formatua.
. ppt/pptx: .ppt aurkezpen formatua.
.pptx: Microsoft PowerPoint jatorrizko aurkezpen formatua.
.rtf: testu estandarraren formatuak.
.sxw: Star Office jatorrizko testuaren formatua.
abw: Abiworden jatorrizko testuaren formatua.
.pdf: Adobe Acrobaten jatorrizko dokumentu formatua.
.jpg: formatu grafikoa.
.bmp: Microsoft Windowsen jatorrizko formatu grafikoa.
.tiff | .tif: formatu grafikoa.
.odt: OpentDocument testu formatua.
.ods: OpentDocument kalkulu orriaren dokumentua.
.odp: OpentDocument aurkezpen dokumentua.
.odi: OpentDocument irudi formatua.
.zip: Winzipen jatorrizko formatu konprimitua eta Microsoft Windowsek eutsia.
.dwg: AutoCAD marrazki formatua.

Enpresa lizitatzailearen erantzukizuna da eskaintzak birusik gabe aurkeztea. Hala eta guztiz ere, birusa izan arren, ez da eskaintza baztertuko, betiere edukira irits badaiteke. Kasu bakoitzean gorabeherak kontuan hartuta, kontratazio mahaiak erabakiko du.

Eskaintzak asteko 7 egunetan 24 orduz aurkez daitezke: aurkezteko data eta ordua Gorlizko Udaleko erregistro elektronikoak igorritako egiaztapen agirian azaldutakoak izango dira eta eskaintzak hartzeko epemugarekin bat etorriko dira.

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez une bakarrean oso-osorik edo bi fasetan bidal daitezke. Bigarren aukera hautatuz gero, lehenik eta behin,

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa igorriko da eta hartutakoan ondorio guztietarako aurkeztutzat joko da. Gero, berez eskaintza bidal daiteke gehienez 24 orduren buruan. Dena den, bigarrena aipatu epean bidaltzen ez bada, eskaintza erretiratutzat joko da.

Eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa datuen multzoa da. Horien sortze prozesuari esker, berez eskaintzaren edukiarekin zalantzarik gabe erlazionatzen dira eta, ondorioz, edukian aldaketak antzeman daitezke. Modu horretan osotasuna bermatzen da, lizitatzaileak bidali duenetik edukia ez dela aldatu egiazta daitekeen neurrian.

Tamainaren ondorioz eskaintzak transmititzeko zailtasunak aurrez ikusten badira, sarearekin konexioaren arazoak badaude… lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea aukera dezakete. Hala eta guztiz ere, beren eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen igorri beharko dute. Halakoetan, eskaintza osoa bidaltzeko 24 ordu izango dituzte eta "hash" aztarna elektronikoa Gorlizko Udaleko atzipen puntu orokorrera (online izapideak) bidaltzen denetik hasiko da zenbatzen. Nolanahi ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen egingo da.

Lizitatzaileek beren eskaintzaren "hash" aztarna elektroniko transkribatua (ez irudia) bidali beharko dute Gorlizko Udaleko atzipen puntu orokorrera, espedientearen zenbaki eta lizitatzailearen identifikazio datuekin batera. Helburua kontratazio mahaiak bidalitakoan aztarna digitala aurkeztutako eskaintzaren aztarnarekin bat datorrena egiaztatzea da.

Fitxategia kaltetua dagoelako eskaintzaren edukian ezin daitekeenean sar, enpresa lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortu den kopia lokalera jo daiteke eta, horretarako, eskaintzaren aztarna digitala kontratazio organoaren esku dagoenaren berdina dela egiaztatuko da.

Eskaintzak aurkeztuz gero, enpresaburuak klausula guztiak salbuespenik gabe onartzen dituela ondorioztatuko da (SPKLaren 139. art.).

Enpresa lizitatzaileek, euren proposamenak prestatu eta aurkezterakoan zein kontratua indarrean den bitartean, genero-berdintasuna sustatzeko legez ezarritakoa hartu beharko dute kontuan, ez dute hizkuntza edo irudi sexistarik erabiliko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten estereotipo sexistarik gabeko materialak eta jarduerak sortuko dituzte.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Fitxategi elektroniko bakoitzean enpresaren izena, IFK edo IFZ, posta arruntaren eta elektronikoaren helbidea, telefonoa, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta kargua adieraziko dira, azkenekoaren sinadurarekin batera.

A).- 1. FITXATEGIA

ADMINISTRAZIO AGIRIAK

Honako agiriak izango ditu:

● **Erantzukizunpeko adierazpena** (baldintza-agiri honen I. eranskineko ereduaren arabera), lizitatzaileak kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta, zehazki, baldintza-agiri honetan zehaztutakoak betetzen dituela adierazten duena, bai eta hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia duela ere, eta konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoak eskatzen dion edozein unetan aurkezteko, eta, nolanahi ere, esleipen-proposamena bere aldekoa bada, esleipena egin aurretik aurkeztuko dituela.

Adierazpen honen edukia aurreikusitako ereduari egokituko zaio, eta lizitaziotik kanpo uzteko arrazoi izan daitezke eredu hori aldatzen dutenak.

Legeak eta kontratatzeko baldintza-agiri honek eskatzen dituzten baldintzak betetzen direla erabakitzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

● **EKAB agiria**: Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztuko da, hau da, enpresa interesdunaren adierazpen formala eta eguneratua. Dokumentu hori Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatua ezartzen duen 2016ko urtarrilaren 5eko 2019/7 (EB) Erregelamenduaren bidez onartu da. Baldintza-agiri honen II. eranskinean daude horiek betetzeko jarraibideak.

● **Aldi baterako enpresa-elkartea (ABEE) eratzeko konpromisoa, hala badagokio**. Bi enpresa edo gehiago lizitaziora joaten direnean aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoarekin, adierazpen bat aurkeztu beharko da, sinatzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetza eta adjudikaziodun izanez gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa adieraziz. Elkarteko enpresa bakoitzeko ordezkariek

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

sinatu beharko dute agiri hori. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere EKAB agiria aurkeztu beharko du.

● **Enpresa-talde batekoa izatearen aitorpena**, IV. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Enpresa-talde bateko kide ez bada, adierazpen hori egingo da.

● **Dokumentazio osagarria**, hala badagokio

B) 2. FITXATEGIA

FORMULAREN BIDEZ ZENBAGARRIAK EZ DIREN IRIZPIDEEN GAINEKO AGIRIAK.

Lizitatzaileek euren eskaintzak ezarritako formulen bidez zenbagarriak ez diren balorazio-irizpideen bitartez balioztatu eta haztatu ahal izateko beharrezko agiriak aurkeztu beharko dituzte. Gutun-azal honetan ezin izango da eskaintza ekonomikoa sartu, ez eta eskaintza ekonomikoaren gaineko agiri garrantzitsurik ere, ez formularen bidez zenbagarriak diren irizpideen gaineko agiririk ere.

C) 3. FITXATEGIA

FORMULEN BITARTEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK.

Eskaintza ekonomikoaren inguruko agiriak izango ditu.

Proposamena VI. eranskinean duen ereduarekin bat aurkeztuko da.

Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ez du inolaz ere kontratuaren lizitazio aurrekontua gaindituko. Ondore guztietarako, eskainitako prezioaren barruan azalpen guztiak daudela ulertuko da, zergak, gastuak, tasak, edozein arlo fiskaletako arielak, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) eta kontratistak lortuko dituen industria-irabaziak barne.

Ez dira onartuko ezaugarri hauek dituzte proposamenak:

*.- Kontraesanak, hitzak faltan, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak, administrazioak proposamena kontuan hartzeko beharrezkotzat jotzen duena argi ulertu ezin bada.

*.- Aztertu eta onartutako agiriekin bat ez datozenak.

*.- Gehieneko lizitazio-oinarria gainditzen dutenak.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

*.- Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena ageri dutenak.

*.- VI. eranskinean ezarritako proposamen eredua nabarmen aldatzen dutenak.

*.- Lizitatzaileak hala onartuta, eskaintza bideraezin egiten duten akats edo funsgabetasunen bat dutenak.

Letraz eta zenbakiz adierazitako eskaintzak bat etorri ezean, letraz azaldutakoa hartuko da kontuan (salbuespena izango da letraz adierazitako zenbatekoak bakarrik gainditzen badu lizitazio oinarria), baldin eta agiriak aztertzetik eratorritako irizpide arrazionalak erabilita, kontratazio mahaiak besterik erabaki ez badu.

Agerrarazten da eskaintza ekonomikoan kontu-akatsik egon ezkero, zuzendu egin ahal izango direla. Eskaintzak baztertzea eragin ez duten kontraesanen kasuan, administrazioari gehien komeni zaiona hartuko da kontuan. Eskaintzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

11. KLAUSULA.- KONFIDENTZIALTASUNA.

9/2017 Legeak adjudikazioaren publizitate eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz xedatutakoa baztertu gabe, horiek eskaintza formulatzean eskuratutako informazioaren zati bat konfidentzialtzat jo dezakete, hala nola, sekretu teknikoak edo merkataritzaren ingurukoak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lehiak, bai lizitazio prozedura horretan, bai ondorengoetan faltsutzeko erabil dezakeen beste edozein informazio. Kontratazio-organoek ezingo dute informazio hori zabaldu baimenik izan gabe.

Konfidentzialtasunaren betekizuna ezin daiteke adjudikaziodunaren eskaintza guztira zabal. Gauza bera gertatuko da lizitazio prozesuan kontratazio organoak zuzenean edo zeharka sortzen dituen txosten eta agirien edukiekin. Bakarrik hedapen mugatua duten agirietara zabalduko da eta inolaz ere publikoki irisgarriak diren agirietara.

Halaber, konfidentzialtasunaren betekizunarekin kontratuetan konfidentzialak ez diren zatiak, besteak beste, likidazioa, zerbitzua eskaintzeko azken epeak, kontratatu eta azpikontratatu diren enpresak eta, nolanahi ere, eskaintzaren oinarrizko zatiak nahiz kontratuaren ondorengo aldaketak

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

jendaurrean zabaltzea ez da saihestuko. Dena den, 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatutakoa errespetatuko da.

Modu berean, kontratak kontratua gauzatzen ari den bitartean lortutako informazio konfidentziala errespetatu beharko du, pleguetan edo kontratuan informazioak isilpeko izaera badu. Gauza bera egingo da izaerarengatik tratamendu hori duen informazioarekin. Betebehar hori bost urtez mantenduko da informazioa ezagutzen den unetik, pleguek edo kontratuak epe luzeagoa xedatzen dutenean izan ezik.

12. KLAUSULA.- AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

1. GUTUN-AZALA IREKITZEA. ADMINISTRAZIO AGIRIAK

Agiriak balioesteko eta eskaintzak aztertu eta baloratzeko, kontratazio mahaia osatuko duten pertsonak izendatuko dira, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 7. atalean ezarritakoari jarraiki.

Mahaiburuak fitxategiak zabaltzea aginduko du eta idazkariak egiaztatu egingo du bakoitzean dauden agiriak zeintzuk diren.

"1" FITXATEGIAN jasotako agiriek konpontzeko moduko akats edo hutsak dituztela ikusiz gero, kontratazio mahaiak horiek konpontzea eskatuko du. AGERRALDI ELEKTRONIKOAREN bidez jakinaraziko da, baina xede hori betetzeko egokitzat jotzen duen beste edozein bide ere erabili ahal izango du (besteak beste, interesdunei ahoz jakinaraztea).

Agiriak zuzentzeko hiru (3) egun baliodun emango dira.

Egindakoa aktan jasota geratuko da, eta nahitaez igorri beharko da.

"2" FITXATEGIA IREKITZEA: FORMULEN BIDEZ ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

Gutun-azalak irekiko dira kontratatzailearen profilean adierazitako egunean. Ekitaldia gehienez zazpi eguneko epean egin beharko da "1" fitxategia irekitzen denetik aurrera (817/2009 EDaren 27. art.).

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

3 FITXATEGIA IREKITZEA: FORMULEN BIDEZ ZENBAGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK

Jarduketa horiek egindakoan, 3. FITXATEGIA irekitzeko ekitaldia egingo da Udaletxean (Elizako plaza, z/g), kontratatzailearen profilean adierazitako egunean. Horren garapenean, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 83. artikuluan aurreikusitako formalitateei erreparatuko zaie.

Ebaluazio orokorrean onartuak izateko gutxieneko puntuazio-atalasea eskatu bada SPKLaren 146. artikuluaren arabera, lizitatzaileek gutxieneko puntuazio-atalasea izan beharko dute, eta, beraz, kontratazio mahaiak ez ditu kontuan hartuko puntuazio horretara iristen ez diren eskaintzak.

Eskaintza ekonomikoak irekitzeko egintza publikoari ekin baino lehen, proposamenei buruzko alderdi teknikoen balioztapena irakurriko da, 2. gutun-azaleko agiriak kontuan hartuta. Bi egun balioduneko epea emango da, kontratua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, lizitatzaileek idatziz adieraz dezaten ekitaldi horri buruz egokitzat jotzen dutena.

13. KLAUSULA.- ADJUDIKATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK,

FORMULEN BITARTEZ ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 40 PUNTU (2 FITXATEGIA)

- Proiektuaren metodologia: gehienez 20 puntu

  Gaiak baloratuko dira. Landu beharreko gaiek zerikusia izango dute bereziki gizarte, kultura eta gaurkotasun-balioekin (esate baterako, bullying-en aurkako borroka, genero-berdintasuna edo euskal kulturaren ezagutza), betiere kontuan hartuta zerbitzuaren helburu nagusia euskara erabili eta ikastea dela. Bereziki balioetsiko da proposamenak jolas girokoak, dinamikoak eta parte-hartzaileak izatea.

- Programazioa: gehienez 20 puntu

  Proposamenak kronograma erantsiko du eta hilero zehaztuko dira jarduerak. Balio berezia emango zaio zehatza izateari.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

FORMULAREN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 60 PUNTU (3 FITXATEGIA)

Prezioa: Gehienez, 60 puntu

Eskaintzarik merkeenari puntuaziorik altuena emango zaio, eta gainerako eskaintzetan, berriz, formula hau erabiliko da:

$$\text{Lop} = \text{Gp} * \frac{\text{Lp} - \text{Ee}}{\text{Lp} - \text{Em}}$$

Non:

Lop = Lortutako puntuazioa
Lp = Lizitazioaren prezioa
Ee = Egindako eskaintza
Gp = Gehieneko puntuazio posiblea
Em = Eskaintzarik merkeena

14. KLAUSULA.- ESKAINTZAK OHIZ KANPOKO EDO PROPORTZIORIK GABEKO BALIOEKIN.

Eskaintzek ohiz kanpoko balioak edo proportziorik gabekoak izango dituzte, kontratuei buruzko legearen araudiak 85. artikuluan xedatutako ustezkoetan. Ohiz kanpoko edo proportziorik gabeko balioak dituzten eskaintzak egonez gero, 9/2017 Legeak 149. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituko zaio.

15. KLAUSULA.- KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio mahaia eskaintzak balioztatzeko organo eskuduna da eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak, 326. artikuluan xedatutakoari jarraiki jardungo du. Gainera, bertan zehazten diren funtzioak garatuko ditu.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak, bigarren xedapen gehigarriko 7. puntuan aurrez ikusitakoaren arabera, kontratazio mahaiaren buru Udalbatzako kide bat edo bertako funtzionario bat izango da eta idazkari bezala Udalbatzako funtzionarioa arituko da. Mahaikideak idazkaria eta kontu-hartzailea izango dira, kontratazio organoak Udalbatzaren zerbitzura dauden karrerako langile funtzionarioen edo

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

lan kontratuko langileen ala hautetsien artean izendatutakoekin batera. Guztira ez dira hiru baino gutxiago izango.

Kide hautetsiak kontratazio mahaian badaude, ezingo dute kide guztien herena gainditu.

16.KLAUSULA.- KONTRATAZIO ORGANOA.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak, bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, kontratuaren xedea kontratatzeko organo eskuduna Alkatetza da. Hala ere, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zaio 2023ko abuztuaren 28ko Alkatetzaren Dekretuaren bitartez.

Aipatu organoak kontratua adjudikatzeko gaitasuna du eta, ondorioz, interpretatu, betetzean sortutako zalantzak argitu, interes publikoa dela eta aldatu, kontratua gauzatzeagatik kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna aitortu, gauzatzea eten, suntsiaraztea erabaki eta ondoreak zehazteko eskumenak ditu. Hori guztia araudi aplikagarria kontuan hartuta egin beharko du.

Ematen dituen erabakiak betearazleak izango dira, kontratistak bidezko jurisdikzioaren aurrean horiei aurka egiteko duen eskubideari kalterik egin gabe.

17.KLAUSULA.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Kontratazio organoak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 190. artikuluaren arabera, honako eskumenak ditu:

a) Kontratua interpretatzea.
b) Kontratuaren betearazpenaren gaineko zalantzei erantzuna ematea.
c) Kontratua aldatzea, interes publikoko arrazoiak direla eta.
d) Kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna aitortzea.
e) Kontratua etetea.
f) Kontratuaren amaiera eta horren eraginak erabakitzea.

Nolanahi ere, entzunaldia eskainiko zaio kontratistari, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 191. artikuluan aurreikusitako izapideei jarraitu beharko zaie horretarako.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

18. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK IREKITZEA, KONTRATAZIO MAHAIAREN EGINTZEN EMAITZA ARGITARATZEA ETA NAHASITAKO LIZITATZAILEEI JAKINARAZTEA, BAITA ESKAINTZAK ARGITZEA ERE.

Proposamenak gehienez hilabeteko epean ireki beharko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratazio mahaiak A gutun-azalak irekitzeari ekingo dio eta administrazio dokumentazioa kalifikatuko du.

Beharrezkoa balitz, kontratazio mahaiak gehienez hiru eguneko epea emango dio pertsona lizitatzaileari, aurkeztutako agirietan antzemandako hutsegite edo akats zuzengarriak zuzentzeko.

Modu berean, kontratazio mahaiak enpresaburuari agiri osagarriak edo argitzaileak aurkez ditzan eska diezaioke eta, horretarako, egutegiko bost (5) egun izango ditu.

Ostean, B gutun-azalak ireki eta aztertuko dira. Horiek iritziaren araberako haztapenerako irizpideak dituzte (proposamena aldez aurretik ebaluatu behar da).

Egintza hasteko kontratazio mahaiak berariaz proposamenen kalifikazioari buruz erabakiko du. Lizitazioan onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak identifikatuko ditu.

Oharra.- Lizitazio prozeduratik kanpo geldituko dira lizitatzaileak, B gutun-azalean ondoren (C gutun-azala) ebaluatu behar diren agiriak sartzen badituzte.

Proposamenak irakurri ostean, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen adina txosten tekniko eska ditzake, txostenok pleguan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera balioztatzeko.

Iritziaren araberako haztapena duten irizpideei buruzko agiriak (B gutun-azala) balioztatu ondoren, kontratazio mahaiak zerbitzuen kontratu honetako adjudikaziodunari puntu partzialak (B gutun-azaleko datuen ingurukoa) emanda, proposamena egingo du. Aurreko ataletako jardun guztia aktetan idatziko da, hortaz, prozeduraren eta bere gorabeheren emaitza islatuak gelditukо dira.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Ostean, "C" gutun-azalak ireki eta aztertuko dira eta iritziaren araberako haztapena egiteko irizpideak izango ditu.

C gutun-azalak jendaurrean irekitzeko, proposamenei dagokienez, B gutun-azalaren edukia abiapuntutzat hartuta, mahaiak egin duen kalifikazio partzialari buruz berariaz erabakiko da eta egintza honetan emaitza jakinaraziko da.

Aurkeztutako proposamenen balioztapena (C gutun-azala) ikusirik, kontratazio mahaiak zerbitzuen kontratuko adjudikaziodunari puntu partzialak emanda (C gutun-azaleko datuen inguruan) proposamena egingo du. Aurreko ataletako jardunarekin aktak idatziko dira eta prozedura nahiz gorabeherak idatziak geldituko dira.

Kalifikazioko kontratazio mahaiaren egintzei buruzko emaitza, eskaintzak onartu edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Indarreko legeriarekin bat, argitaratu ezin daitekeen informazioa baztertuko da. Horrez gain, dagokionaren arabera, nahasitako lizitatzaileei komunikazioak edo jakinarazpenak egingo zaizkie.

Lizitatzailea kanpoan uztearen egintza jendaurreko egintzan bertan jakinaraz dakioke, enpresako ordezkariren bat egintzan dagoelako ahalko balitz. Hori gertatu ezean, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 41. artikuluan xedatutako gainerako prozedurak erabiliko dira.

19. KLAUSULA.- AGIRIAK ESKATZEA.

Kontratazio mahaia berriz bilduta, iritziaren araberako haztapena duten irizpideen (B gutun-azala) eta haztapen automatikoko irizpideen (C gutun-azala) balioztapena eta negoziazioa ikusirik, kontratuaren adjudikazioduna proposatuko du.

Proposamena onartu ostean, kontratazio organoko zerbitzuek ekonomikoki eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari ondoren adieraziko diren agiriak aurkezteko eskatuko diote:

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak, ondoren zehazten diren kasuen arabera:

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

a) Pertsona fisikoa: NANa edo proposamena egiten duen pertsonaren agiri fede-emailea.

b) Pertsona juridikoa: eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo fundazio-egintza, zeinetan bere jarduera arautzen duten arauak jasoko baitira, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, pertsona juridiko motaren arabera.

Nolanahi ere, beharrezkoa izango da kontratuaren xede diren prestazioak beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan egotea.

c) Aldi baterako enpresaburuen elkarteak: kide bakoitzak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatuko ditu.

d) Espainiarrak ez diren enpresaburuak, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea dutenak: enpresaburuak dagokien erregistroan inskribatzea, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, edo zinpeko adierazpen bat edo aplikagarri diren Erkidegoko xedapenekin bat datorren ziurtagiri bat aurkeztuta. Era berean, enpresa horiek ezarrita dauden Estatuko legeriak baimen berezia edo antolakunde jakin bateko kide izatea eskatzen duenean, bertan dagokion zerbitzua eman ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

e) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoak: Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena. Halaber, aurkeztutako dokumentazioarekin batera aurkeztuko da atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak ere onartzen duela Espainiako enpresek Administrazioarekiko kontratazioan parte hartzea, funtsean antzera. Erregulazio harmonizatupeko kontratuetan, ez da elkarrekikotasunari buruzko txostenik egingo, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei dagokienez.

2.- Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak. Eskaintza sinatzen duen pertsonak bere izenean jarduten ez duenean, edo lizitatzailea sozietate edo pertsona juridiko bat denean, sinatzen duen pertsonak horretarako ahalorde nahikoa aurkeztu behar du. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde hori dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko da, baldin eta, pertsona juridiko motaren arabera aplikatzekoa den araudiaren arabera, nahitaez inskribatu behar bada.

3.- Ekonomia-, finantza- eta teknika- edo lanbide-baimena: lizitatzaileak karatulan eskatutako gutxieneko kaudimen-baldintzak egiaztatzeko

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar du, baldintza horien ordez karatulan adierazitako sailkapena ezarri denean izan ezik.

4.- Erantzukizunpeko adierazpenean hala adierazi badu, kanpoko bitartekoekin kaudimena integratzeko konpromisoa.

5.- Behin betiko bermea.- Udal Diruzaintzan administrazio kontratatzailearen aldeko behin betiko bermea jarri izanaren frogagiria.

Zenbatekoa.- Klausula-orri hauen azaleko orriaren 24. atalean (behin betiko bermea) ezartzen da.

Bermea emateko moduak.- Bermea legean aurreikusitako edozein modutan eman ahal izango da.

Administrazioak beretzat gordetzen du abalak sinatzeko legitimazioa eskatzeko eskubidea.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa parte-hartzaileen arrazoi sozialak eta IFZ zehaztu beharko dira. Era berean, bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, baldin eta oro har eskatutako zenbatekora iristen badira eta aldi baterako elkartea osatzen duten guztiei solidarioki bermatzen bazaie.

6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

a. Foru Ogasunak edo Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboa, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

Kontratazio-prozedura honetan parte hartzeko interesdunak proposamena aurkezten badu, organo kudeatzaileari baimena ematen zaio administrazio honekiko zerga-betebeharrak betetzeari buruzko ziurtagiriak eskatzeko, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango esleipendun gisa proposatutako enpresak ziurtagiriak aurkeztea kasu honetan.

HAKLren Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren zerga-betebeharrei dagozkien adierazpen edo dokumentu guztiak edo batzuk aurkeztera behartuta ez dagoen lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko du inguruabar hori.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da inguruabar hori.

b. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela edo, hala badagokio, dagokion mutuan alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri positiboa.

Uneko ekitaldiari dagokion alta edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpen batekin osatuta. Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta salbuespen-kasua adieraziko du.

7.- Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkarte hori formalizatzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko kide bakoitzak Ogasunen eta Gizarte Segurantzaren arloko ziurtagiri positiboa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ditu.

8.- Hala badagokio, kontratazio-organoak eskatzen dion kontratua gauzatzeko erabili edo atxikitzeko konpromisoa hartu duen baliabideak benetan badituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

9.- Kontratu erreserbatuak: kontratu erreserbatuaren kasuan, lizitatzaileak agiri bidez egiaztatu behar du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

10.- Karatulan edo pleguetan hala adierazten bada, indarrean dagoen ASEGURU POLIZA, eskatutako zenbatekoarekin.

Lizitatzaileen Erregistroaren ZIURTAGIRI bidez egiaztatzea.

-

Erlazionatutako inguruabarren egiaztapenaren ordez (jarduteko gaitasuna, kontratisten ordezkaritza eta sailkapena egiaztatzen duen dokumentazioa), honako erregistro hauetako edozein ematen duen ZIURTAGIRIA aurkeztu ahal izango da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala, edo

b) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofiziala (hala badagokio), edo

c) Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiriaren bidez.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Dagokion Erregistroan aurkezten den ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrei dagokienez, eskatutako egiaztagiriak aurkeztuko dira.

Nolanahi ere, ziurtagiriarekin batera lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adierazteko.

Zuzenketa. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo omisioak antzemanez gero, posta elektronikoz jakinaraziko zaio interesdunari, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko.

Ez betetzea. (150. art.)

Adierazitako epean errekerimendua behar bezala betetzen ez badu, eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Kasu horretan, jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatzea (BEZik gabe), zigor gisa. Lehenengo eta behin behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, baldin eta eratu bada, hargatik eragotzi gabe artikuluaren a) letran ezarritakoa. 71.2 SPKL.
- Hurrengo lizitatzailearengandik dokumentazio bera biltzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, baldin eta eratu bada, hargatik eragotzi gabe kontratatzeko debekutzat hartzea, errekerimendua epe barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria tarteko.

Kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleituko du kontratua.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

20. KLAUSULA.- BEHIN BETIKO BERMEA.

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak egiaztatu beharko du adjudikazioaren zenbatekoaren % 5eko bermea eratu duela, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo.

Bermea honako modu honetako baten ordaindu ahal izango da:

a) Eskudirutan edo zor publikoaren balioetan, kasuan kasu, Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen garapen arauetan xedatutako baldintzen arabera. Jasotako balioen eskudirua eta ondasun ibilgetuaren ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean edo horren sukurtsaletan gordeko dira, Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzatan, edo eragina izan beharreko tokiko erakunde kontratatzaile edo autonomia-erkidegoen ordezko kutxa edo establezimendu publikoetan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen garapen-arauek jasotako moduan eta baldintzetan.

b) Abal bidez, lege honen garapen-arauek jasotako moduan eta baldintzetan Espainian jarduteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, krediturako establezimendu finantzario eta elkarrekiko berme-sozietateek emandakoa, eta aurreko a) letrak jasotako establezimenduetan ordaindu behar da.

c) Arlo horretan jarduteko baimena duen erakunde aseguratzaile batek berme-aseguruaren kontratua eginda, lege honen garapen-arauek jasotako moduan eta baldintzetan. Aseguruaren ziurtagiria aurkeztu beharko da aurreko letran jasotako establezimenduetan.

Behin betiko bermea osatua dagoela egiaztatzeko, bitarteko elektronikoak erabil daitezke.

Bermea ez da bueltatuko edo kitatuko, berme-aldia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Bermeak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 110. artikuluan aurrez ikusitako kontzeptuei erantzungo die.

Adjudikaziodunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak berme horretatik ateraz gero, adjudikaziodunak egutegiko hamabost (15) egun izango ditu, kobrantza egiten zaionetik, berme hori berriz jartzeko edo zenbateko egokian areagotzeko.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Kontratuaren aldaketaren ondorioz, prezioa aldatzen denean, enpresaburuari aldaketaren erabakia jakinarazten zaion unetik, egutegiko hamabost (15) eguneko epean bermea doitu beharko da, aldatutako prezio berriarekiko proportzionala izateko.

21. KLAUSULA.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA.

Eskatutako agiriak jaso ostean, kontratazio organoak agiriak jaso osteko bost egun baliodunen barruan adjudikatu beharko du kontratua.

Ezin izango da adjudikaziorik gabe itxi lizitazio bat, baldin eta pleguan azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

Adjudikazioa arrazoitua izan beharko da, pertsona hautagai edo lizitatzaileei bitarteko elektronikoak erabiliz jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Edozelan ere, jakinarazpenak beharrezko informazio guztia eduki beharko du baztertutako lizitatzaile edo hautagaiak oinarri nahikodun errekurtsoa ipini ahal izateko adjudikazio erabakiaren aurka. Bereziki, honako alderdiak jasoko ditu:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaia gaitzesteko arrazoien azalpen laburra.
- Adjudikazio prozeduratik baztertutako lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburbilduta.
- Nolanahi ere, adjudikaziodunaren izena eta eskaintza hori lehentasunez aukeratu izanaren ezaugarriak eta abantailak, gainerako lizitatzaileen eskaintza onartuen aldean.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epea adieraziko da.

22. KLAUSULA.- KONTRATUA FORMALIZATZEKO EPEA, FORMALIZAZIOA ETA PUBLIZITATEA.

Kontratua administrazio agirian formalizatzeko, adjudikazioaren jakinarazpen datatik zenbatzen hasita, hamabost egun baliodun izango dira.

Kontratua formalizatzen duen administrazio agiria edozein erregistro publikora jotzeko titulu nahikoa da.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Kontratua eskritura publikoan egitea eskatu ahal izango du kontratistak, eta bere pentzura izango dira horretarako gastu guztiak.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik aipatu epean kontratua ezin bada formalizatu, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio zigorraren kontzeptupean. Lehenengo behin betiko bermearekin ordainduko da, eratua egonez gero, SPKLak 71. artikuluko 2. atalaren b letran xedatutakoa baztertu gabe.

Kasu honetan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio eskaintzen sailkapena kontuan hartuta. Horretarako, legeak 150. artikuluko 2. atalean xedatutako agiriak aurkeztu beharko ditu eta aurreko atalean ezartzen diren epeak aplikagarriak izango dira.

Kontratua formalizatzeari buruzko publizitatea emango da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

23. KLAUSULA.- BERME-ALDIA.

Kontratu honen xedeak 3 hilabeteko berme-aldia izango du, lanak hartu edo ados daudela zehazten den egunetik.

Amaitutakoan, bermea itzultzeari ekingo zaio, SPKLak 110. artikuluan aipatzen dituen erantzukizunez salbuetsi ostean eta HAKLAOak 65.3. artikuluan xedatzen duena alde batera utzi gabe.

24. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA.

Kontratua burutzean Administrazio Baldintza Berezien Pleguan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, kontratazio organoak kontratistari interpretatzeko ematen dizkion argibideen arabera.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak 311. artikuluan xedatutakoaren babesean, kontratazio organoak kontratatutako lanak zuzenduko ditu. Xede horrez, kontratuaren arduraduna izendatuko du Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak 62. artikuluan definitutako funtzioekin.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

25. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua bakarrik interes publikoaren arrazoiak direla-eta alda daiteke. Kasuak eta modua SPKLaren bigarren liburuko I. kapituluaren 3. sekzioko 4. azpisekzioak aurrez ikusten ditu. eta 191. artikuluan araututako prozedura jarraituko da, 207. artikuluan zehazten diren berezitasunekin.

2. Kontratazio organoak egindako administrazio kontratuak bakarrik indarraldian alda daitezke SPKLak 203.2. artikuluan aurrez ikusitako ustezkoren batean.

26. KLAUSULA.- EZ BETETZEAGATIK ZIGORRAK.

— Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, guztizko epea betetzean berandutuko balitz, Gorlizko Udalak kontratua suntsiarazi ahal izango luke edo, bestela, eguneko honako zigorra jar dezake: 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko proportzioan.

Berandutzari dagozkion zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en anizkoitz batera heltzen diren bakoitzean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua burutzen jarraitzea erabakitzeko, baina zigor gehiago ezarriz.

— Kontratistak kontratuan zehaztutako zerbitzuen burutzapen partziala beteko ez balu eta horren errua berari egotzi ahal balitzaio, administrazioak kontratua suntsiarazi ahal izango luke edo, bestela, arestian ezarritako zigorrak ezarri.

— Kontratistak kontratua betetzeko bitarteko pertsonal eta material nahikoak atxiki ez dituenean, kontratuaren aurrekontuaren % 10eko proportzioan ezarriko dira zigorrak.

Kontratuaren arduradunak (izendatu bada) egindako proposamenari jarraituz kontratazio organoak hartutako erabakiaren bitartez ezarriko dira zigorrak. Berehala betearaztekoak izango dira eta guztizko edo zatikako ordainketak gauzatzeko kontratistari ordaindu behar zaizkion kopuruetatik kenduz ordainduko dira; bestela, aipatu ziurtagirietatik kendu ezin badira, eratu den bermetik kenduta ordainduko dira.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Gainerako zigor, zehapen eta abarri dagokienez, kontratistak lizitazioa arautzeko Baldintza Teknikoen Pleguan xedatutakoa kontuan hartuko du.

27. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 203. eta 313. artikuluetan ezarritako arrazoiengatik suntsiarazi ahal izango da kontratua. Kontratua suntsiarazteko izapideak HAKLAOak 109. artikuluan eta hurrengoetan zehazten ditu eta sei hilabete izango dira suntsiarazteko prozedurari ekiten zaionetik. Azkenik, 9/2017 Legeak 213. eta 313. artikuluetan aipatutako ondoreak izango ditu.

Horrez gain, kontratazio organoak kontratua suntsiaraz dezake hori betetzeko guztizko epea edo epe partzialak betetzen ez direnean, ustez eta arrazoiz guztizko epea betetzea ezinezkoa suertatzen bada. Horretarako, kontratazio organoak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak 193.3. artikuluan aipatzen dituen zigorrak ez jartzea erabaki beharko du.

Aldi baterako enpresen elkarteen kasuan, kideren bat 9/2017 Legeak 221.1 a) eta b) artikuluan xedatutako ustezkoren batean dagoenean, administrazioak kontratuaren betekizunak bete ditzaten eska diezaieke aldi baterako elkartea osatzen duten gainerako enpresei. Bestela, kontratua suntsiaraztea erabaki dezake.

Hala eta guztiz ere, zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en anizkoitz batera heltzen diren bakoitzean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua burutzen jarraitzea erabakitzeko, baina zigor gehiago ezarriz.

28. KLAUSULA.- KONTRATUAREN LEGE ARAUBIDEA.

Kontratua administratiboa da eta prestatu, adjudikatu, ondorioak zehaztu eta azkentzeko plegu honi erreparatuko zaio. Dena den, honek aurrez ikusten ez duenerako, hurrengoak dira aplikagarriak: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa, 2014ko otsailaren 26ko Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako lege antolamenduan iraultzen dituena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena; eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus

Orokorra onartzen duena eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu ostean balioa duena. Modu ordezkatzailean administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eskumena izango du kontratuaren aldeen artean ematen diren eztabaidak erabakitzeko, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 27.1 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Gorlizko Udala – Eliza Enparantza, z/g – 48630 Gorliz (Bizkaia) – Tel. 94 677 01 93 – Fax 94 677 02 67 – udala@gorliz.eus – www.gorliz.eus